

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

*Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen produktuak funtziona dezan? Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?*



Hasteko, buruan dugun produktua gauzatzen lagunduko diguten enprekin harremanetan jarriko gara. Horretarako, lehenik eta behin gure proiektua zentro teknologikoetara bidaliko dugu, beraien ikuspuntua eman eta aurrera eramaten lagun diezaguten. Ezinbestekoa zaigu proiektuaren alde logistikoan zentro teknologikoetako injenieroen iritzia ezagutzea edo beraien aholkularitza ere jasotzea.

Ezin dugu ahaztu gure proiektua finantziatuko dutenekin edo diru laguntzak nahiz maileguak eskainiko dizkiguten erakundeekin ere kontaktuan jarri behar dugula. Behin finantziarioa, negozio plana eta prototipoak pentsatuta ditugula, gure produktua ekoizten hasi beharko dugu. Horretarako, teknologian espezializatutako lantegi batekin jarriko gara harremanetan, hau da, gure hornitzaileak izango direnekin. Azken erakunde hau estrategikoki aukeratzea garrantzitsua da, kalitate ona eta prezio merkeak bilatzen baititugu, eta oreka onena bermatuko digun erakundea aukeratzeko

Era berean, gure webgunea, sare sozialak martxan jarri eta aktibo mantentzea ere garrantzitsua izango da. Hori guk geuk egingo dugun eginkizuna izango da. Komunikazioa eta marketingaz arduratzeaz gain, alor administratiboaz ere arduratuko gara gu geu. Ondoren, patenteak egiten adituak diren pertsonekin ere kontaktuan jarri beharko gara. Gure produktua patentatu ahal izateko merkaturatu aurretik.



Produktua ekoiztu ondoren, hainbat enpresarekin hitz egingo dugu, gure ordenagailuaren publizitatea kudeatu ahal izateko. Hortaz gure marketing taldea arduratuko da.